



Huerta de Peralta: lan eskubideen aldeko borroka Nafarroako landa eremuan

Huerta de Peralta langileak greba mugagabeen daude abenduaren 26tik, kaleratutako langileen berronarpeneren alde, hitzarmen sektorialaren betetzea eta enpresa itun baterako negoziazioak irekitzea eskatzeko. Urtetan Nafarroako landa eremuan egondako gaztarik handiena da eta agerian utzi du nafar jendar-teak nahiz bere instituzioek duten erronka: Nafarroako landa eremuan lan eskubideak aitortu eta zabaltzea.

Zer gertatzen ari da Huerta de Peraltan?

Huerta de Peralta enpresak landa eremuko lehengaiak ekoiztu, eraldatu eta merkaturatzen ditu. Enpresa handia izan arren, orain arte ez zuen Enpresa Batzoderik. Erreferentziatzeko hitzarmena, agropekuaria, behin eta berriz urratu egiten zen:

- Eguneko 13 orduko eta gehiagoko lanaldiak (egun batean 16 orduko lanaldia egitea gertatu izan da, goizeko hiruetatik arratsaldeko seiak arte).
- Jai egunetan lan egitea, inongo osagarririk gabe. Ez zen ordaintzen, ezta ere, ez gaueko osagarririk, ez kategoriarik, ez antzintasunik, ez bajaren osagarririk, ez oporrik (langileak kaleratuak ziren opor garaian).
- Ebentualitate izugarria, legez kanpokoa.

Hau da, Huerta de Peralta jabea dirutza irabazi dute langileen esplotazioaren ondorioz. Adibide gisa, honako hau: hitzarmena ez betetzeagatik langileek epaitegietan erreklatatu duten diru kopurua, soilik urte bete kontutan hartuz, 440.000 eurokoa da. Lehen helegiteen epaia atera da jada eta eskatutako 25.000 euroak ordaintzera zigortu dute Enpresa.

Duela urte eta erdi, langileek antolatzea erabaki zuten, LAB sindikatura jo zuten eta hauteskunde sindikalak sustatu zituzten. Enpresako zuzendaritzak ez zuen gogo onez hartu langileek beren eskubide sindikalak, legediak aitortutakoak, erabiltzea, eta langileak mehatxatu eta emaitzak baldintzatzen saiatu zen. Ez zuen arrakastarik izan: LABek Enpresa Batzordeko 9 ordezkarietatik 6 lortu zituen.

Ordezkarien nahiz LABeko atal sindikalaren lanari esker, egoera laborala modu ikusgarrian hobetu zen:

